

6. Buletina

2012ko URRIA

LAN OSASUN ALORREKO BULETINA

AURKIBIDEA:

- 1. LANBIDEREN KUDEAKETA KASKARRAK ETA FUNTZIONAMENDU ARAZOEK PREBENTZIO IKASTAROEN KUDEAKETAN ERE ONDORIOAK IZAN DITU**
- 2. ERRENTERIAKO UDALA BERRIRO LAN ERASOENGATIK KONDENATUA**
- 3. MUTUEN EKONOMI IKUSPEGIAK LANGILE HAURDUNAREN BABESA BALDINTZATZEN DU**
- 4. BERGARAKO ARCELOR MITTALEKO LAN OSASUN ETA SEGURTASUN KOMITEAK GAI HONETAN ENPRESA EGITEN ARI DEN KUDEAKETA SALATU DU**
- 5. LAN-ISTRIPUEN TAULA HEGO EUSKAL HERRIAN, 2012KO URRIA**

6. Buletina

2012ko urria

1. LANBIDEREN KUDEAKETA KASKARRAK ETA FUNTZIONAMENDU ARAZOEK PREBENTZIO IKASTAROEN KUDEAKETAN ERE ONDORIOAK IZAN DITU

Aurreko zenbakietan azaldu bezala, 1997ko Akordio Interprofesionalak ezarritako prebentzio delegatuen formakuntza ikastaroak, 2011ko irailetik, orain urtebete, ez zaizkigu ez sindikatuoi ez formakuntza zentrueri ordaintzen.

Osalanen esanetan, hasiera batean hitzezko akordio bat egin zen Lanbide eta Osalanen artean 2011ko bigarren seihilabetetik aurrera ospatutako ikastaroen ordainketa egiteko, baina Lanbidek ikastaroen ordainketa eta kudeaketa aurrera eramateko prozedimendurik ezarri ez izanak, benetako baliabiderik ez egotea suposatu zuen.

Bitartean egindako ikastaro guztiak ordurarte Osalanekin erabilitako egituraren arabera ospatu dira, Lanbidek egoera jakin eta onartu duelarik.

Jakin izan dugunez, aurtengo ekainean ordainketa eta kudeaketaren inguruko puntuak zehazteko Osalan eta Lanbideren artekoa akordio bat egin, egin zen bai sinadurarik gabekoa, egoerak oraindik ere jarraituz.

Lanbideren inguruan ELAtik egin dugun irakurketa eta salaketen beste adibide bat azaldutakoa. Formakuntzaren gaian ere, legealdi honetan, Lanbideren kudeaketa eta funtzionamendua kaskarra izan da oso. Lanbideren jardunbidean ez da norabiderik egon, ez gizarte prestazioen eskaera eta ordainketan, ez enplegu planak martxan jartzean eta ejekuzioan eta ezta formakuntzan ere.

Gai benetan garrantzitsuak dira langileriarentzat, herritarrontzat baina ez hilabete bukaerara malgu heltzen direnentzat, soldata altuak dituztenentzat, gobernatzen dutenentzat azken finean. Konpondu gabeko gaiak, datorren gobernuaren egitekeen zerrendan, eta ordurarte?

ELAtik gure prebentzio delegatuei formakuntza ematen jarraituko dugu, ELArentzat funtsezko gaia delako eta batez ere, langileriaren segurtasuna eta osasuna jokoan dagoelako.

2. ERRETERIAKO UDALA BERRIRO LAN ERASOENGATIK KONDENATUA

Pasadan irailean Erreterriako udala epai bidez eta berriro ere, udaleko langile batek jasandako lan erasoengatik izandako ondorio eta kalteengatik 284.022 euro ordaintzera zigortu dutelaren berri izan dugu. Esan bezala, hau ez lehen aldia, 2009an ere udala antzeko arrazoiengatik kondenatu zuten. Lau izan dira egoera salatu duten langileak. Aurreneko bi kasuetan, udalak 370.000 euro ordaindu zituen guztira eta besteak beste 900.000 euro inguruko kopuruaz ari gara. Beste bi kasu epai mahaiak erabakitzeaz daude oraindik.

Tratu txar psikologikoa lan jazarpenaren edo mobbingaren adierazgarrien arteko bat da, eta beti ere horrelako portaerak onartezinak badira, Administrazio publikoan ematen direnean are gehiago. Horrelako portaerak ekiditzeko beharrezkoak diren segurtasun neurriak ez hartzea langileen eskubideen eta duintasunaren aurkakoa izateaz gain, prebentzio legean ezarritakoa urratzen du baita.

Gehienetan lan jazarpenaren egoerak ez dira modu argi eta eraginkor batean konpontzen, arrisku psikosozialak ez dira modu egokian neurtzen, eta neurtzekotan modu orokor eta formal batean baino ez da egiten eta arazoa sustraitik heldu gabe geratzen da.

Are gehiago, legea eskasa eta urria da eta epaitegietara helduz gero, ez dira behar bezala atenditzen, berandu, eta zorrotasun askorik gabe aztertzen diren gaiak dira, kaltetuen mina beharrik gabe handituz. Erreterriako kasuan, 1995 - 2007 bitarteko egoerak aztertu dira.

Erreterriako udala egin behar ez denaren adibide ezin hobea da. Baina orain galderak asko dira, nor edo nortzuk dira kudeaketa eta neurriak ez hartzearen ondoriozko erantzuleak, arduradunak? Nor edo nortzuk ordainduko dituzte lan jazarpenaren ondoriozko kalteordain eta prestazioen errekarquak? Erreterriako herritarrek ordaindu beharko dituzte?

3. MUTUEN EKONOMI IKUSPEGIAK LANGILE HAURDUNAREN BABESA BALDINTZATZEN DU

Mutuak lan ondoriozko prestazioak eta haurdunaldi bitarteko prestazioa ez ordaintzeko modu guztietako trikimailuak erabiltzen ari direla esatea ez da berri.

Haurdunaldi bitarteko arriskua prebentzio zerbitzuak egindako arriskuen ebaluaketan agertu behar da. Hala bada ere, jakin badakigu, mutua askotako zerbitzu medikuek zalantzan jartzen dituztela ebaluaketa horietan esandakoa, prestazioaren onartzea atzera botaz edo onartzeko ezarrita dituzten haurdunaldiaren aste kopurua luzatuz.

Haurdun dagoen emakume langileak mutuaren aurrean prestazioa eskatzean aurkeztu beharreko dokumentazioaren artean, lanpostuan arriskua existitzen denaren ziurtagiria dago, mutuak egin beharrekoa. Beno ba, nahiko dira kasuak non mutuak irazpide hori egiteko ezetza eman duen. Horrela, eta 295/2009ko Errege Dekretuaren 37. artikulua zorroztasunez erabilita, langilea ezintasun arrunta dela eta bajaran dagoela alta hartzera behartzen dute, lanera bueltatzeko betebeharra izanda eta ziurtagiria egiten den bitarteko denbora hortan lan ezintasunagatik ordaindu beharko luketen adina aurrezten dute.

Ziurtagiria aurkeztea, prestazioaren eskubidea aztertzeko eta kasuan kasu onartzeko beharrezkoa den heinean, lanpostuz edo funtzioz aldatzeko edo ezintasun egoerara pasatzeko betekizuna denez, ELArentzat argi dago mutuak denborak aurrera egitea eta onartu orduko prestazioa laburtu eta aurreztea dituela helburu, beraz, mutuen neurrigabeko eta gehiegizko, abusuzko jokabidea dagoela argi dago.

Bitartean langilea denbora luzeago baten lanean jarraitzera behartzen dute, horrek suposatzen duen arriskuarekin, eta gehienetan, ordurako haurdun dagoen langilea ezintasun egoeran egon behar zela jakinda.

Zertaz ari gara orduan? Prebentzioaz? Argi dago, zein den mutuen lehentasuna kasu honetan ere, irizpide ekonomikoak nagusi, nola ez!

4. BERGARAKO ARCELOR MITTALEKO LAN OSASUN ETA SEGURTASUN KOMITEAK GAI HONETAN ENPRESA EGITEN ARI DEN KUDEAKETA SALATU DU

Lan osasunaren arloan enpresa garatzen ari den kudeaketaren okerrerako joera salatu du Lan Osasun eta Segurtasun Komiteak iritzi publikoaren aurrean.

ELAko atal sindikalaren iritziak, lan ezbeharretan gorakada ematen ari da. Horren atzean dauden arrazoiak askotarikoak dira: gai honetara bideratzen diren inbertsioen murrizketa, langile kopurua txikitu izana eta laneko aginduetan exijentzia maila gogorragoa, besteak beste. Guzti honek, langileek jasan beharreko lan karga areagotu egiten du.

Lan istripu bat dagoen bakoitzean enpresako zuzendaritzak agente katearen aurka zigorrak ezartzearen hautua egiten du, langileen ordezkariak istripuaren arrazoiak azterketan inolako parte hartzerik eman gabe. Lan Osasun eta Segurtasun komitearen deiak eta iritziak ez ditu kontutan hartzen enpresak, duela hilabete gutxi arte indarrean egon diren informazio eta parte hartze arauak aldatuz. Izan ere, lan ezbeharren oinarrian dauden arrazoiak argitzeko ez zaio Komiteari deirik ere egiten eta istripuen atzean dauden faktore estrukturalen inguruan diagnostiko bateratua egitea oztopatu egiten du.

Arazo honi aurre egiteko, eta lan osasun eta segurtasun arloaren joera atzerakoa salatuz, sindikatuen ordezkariak salaketa eta aldarrikapen publikoa egitea adostu dute. Era berean, egoera hau konpondu arte, Lan Osasun eta Segurtasun Komiteko bileretara ez joatea erabaki dute.



5. LAN-ISTRIPUEN TAULA HEGO EUSKAL HERRIAN, 2012KO URTARRILA - URRIA

HEH	LAN-ISTRIPUAK
BIZKAIA	14
GIPUZKOA	12
ARABA	7
NAFARROA	7
GUZTIRA	40

*Datuak urriaren 29ra